

LEGAZPI / Umeak literaturarekin lotu nahi ditu kultur etxeko erakusketak

Aste osorako eskoletako umeen bisita gidatuak antolatuta bazeuden ere, eguraldi txarragatik atzeratu egin dituzte

Miriam Luki

Animaliek hizketan zekiten garaian erakusketa ireki berri dute Legazpiko kultur etxean, Udal Liburutegiak antolatuta. Euskarazko haur eta gazte literatura sustatzeko Galtzagorri elkarteak osatutako erakusketak, erakusketa baino gehiago, haurrei zuzendutako proposamena izan nahi du; izan ere erakusketatik harago areto literario bat jarri dute kultur etxean.

Galtzagorri elkarteko kide Itziar Zubizarreta idazleak sortu du muntaia, Aitziber Alonso diseinatzailearen eta Aurelio Edler musikariaren laguntzarekin. Erakusketak agertzen dituen alegien bidez, haurrei jolas literario batean murgiltzeko aukera emango diete: hainbat ekintzaren bitartez irakurketa eta idazketa proposamenak egingo dizkiete. Alegiak haurrek animaliekin dituzten identifikazioak landu eta animalengan islatzen dituzten sentimenduak azaleratzeko erabiliko dituzte.

Erakusketaren helburuak haurrek hizkuntzaz gozatzea, haiengan literatur zaletasuna bultzatzea, literatura era ludikoan lantzea eta haurrek euren sentimenduekin esperimentatzea dira. Magiaz betetako aretoan haurrek zuzenean hartuko dute parte sortutako alegietan. Domingo Agirre eta Haztegi ikastetxeetako ikasleek egin behar dituzten bisita gidatuak ostiralera arte bertan behera gelditu dira egunotako eguraldi txarrarengatik.

Liburuaren Egunaren harira

Apirilaren 2an ospatuko den Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Egunaren eta apirilaren 23ko Liburuaren eta Jabego Intelektualaren Nazioarteko Egunaren inguruan antolatu dituzten ekintza ugarien aurrerakina izan nahi du Animaliak hizketan zekiten garaia erakusketak.

Legazpiko Udal Liburutegiko arduradunek diotenez aurten ekitaldiak aurreratzea pentsatu dute. Aste Santua apirilean egokitu da, eta horregatik ospakizunak martxoaren bigarren hamabostaldian hasi nahi izan ditugu.

Kultur etxeko erakusketa-aretoan ikusgai dagoen bildumaz gain, etzi Kandido Urangaren eskutik Bernardo Atxagaren Henry Bengoa inventarium lana antzerki bihurtuta ikusteko aukera izango dute legazpiarrek. Antzerki saioa 20:30ean hasiko da Latxartegi aretoan.

Martxoaren 30ean, hileko azken ostirala, ipuin kontaketa egingo du Kontu Kontari taldeak liburutegian. Saioa bost urtetik aurrerako haurrentzat izango da. Apirilean ere ekitaldi ugari egingo dituzte Legazpin, eta liburuak izango dira guztietan ardatz. Markeliñe taldekoek, adibidez, Txitxarra eta inurria umeentzako antzerkia ekarriko dute Latxartegira, apirilaren 1ean.

Gaztetxoek eta helduek apirilaren erdialdean zenbait idazlerekin solasean aritzeko aukera edukiko dute. Alberto Ladronek bi saio egingo ditu, bat kultur etxean herritar guztiei irekia, eta bestea batxilergoko ikasleekin. Imanol Azkue idazlearekin solasaldia egin ahal izango dute, bestetik, DBHko ikasleek eta Anjel Lertxundirekin erdarazko saio irekia izango da kultur etxean. Apirilean zehar, liburutegia ezagutarazteko asmoarekin, haurrek liburutegira bisita gidatuak egiteko aukera ere izango dute.